

BEZEROAREKIKO

HARREMANAK

Bezeroekin dugun harremana erabat profesionala izango da, langile kualifikatuak garelako. Gure enpresa erabat online denez, hau da, gure bezeroak gurekin komunikatzeko modu bakarra internet bidez denez, haiekin harreman pertsonalizatua eta automatizatua izango dugu

- Batez ere, kontaktua automatizatua izango da, gure enpresa web orri batean oinarrituta dagoelako. Baina webgunea izanda ere, gure bezero beteranoenentzat erabilerraza da, webgune erraza da, eta dena zehatz-mehatz azalduta dago. Interneten gure Pill-Mind izena jarri besterik ez dute egin beharko, eta gure web orrira joango dira zuzenean, bertan produktuak aurkitzeko. Webgunearen barruan informazio gehiago aurkituko dugu gurekin harremanetan jartzeko, hala nola gure instagram **@pill_mind** edo gure telefonoa **677*******.

- Gure bezeroekin dugun harreman pertsonalizatua dei-zerbitzu batean oinarritzen da. Gure ideia da eguneko 24 orduetan eskuragarri egotea produktua erabiltzeko zailtasunak dituztenentzat edo produktuaren akats bat jasan dezketenentzat. Dei-zerbitzu hau webean zenbakia jartzen dutenentzat bakarrik izango da eskuragarri, iruzurra saihesteko. 24 orduz erabilgarri egon arren, nahitaezko zerbitzua goizeko 8etatik gaueko 11ak arte baino ez da izango, ezarritako ordutegitik kanpo deia jasotzerik izan ez bada, deia berehala itzuliko da ikusi bezain laster, eta datuak webgunean (izena eta zenbakia) sartu direnez, berehala identifikatu ahal izango da gure bezeroa nor den.



Zerbitzu horren bidez, bezeroek askatasun osoa izango dute pastilla-ontziaren erabilerari eta produktuak izan duen edozein



arazori buruzko galderak egiteko. Gure proposamena da produktuak nola funtzionatzen duen erakusten laguntzea kostatzen zaienentzat, eta produktu hori erosten duten guztiek edozein arazoren aurrean segurtasuna sentitzea. Horrela, produktu bat baino gehiago zerbitzu bat dela erakutsiz.

Amaitzeko, gurekin urteak daramatzaten pertsonak, gutxi gorabehera bi urte daramatzatenek, doako mantentze-lanak izateko aukera izango dute, hau da, gurekin urte horiek daramatzaten bezeroek ez dute pilula-ontziaren edozein aldaketa ordaintzeko betebeharririk izango, zerbait gertatuko balitzaio.